



2025GOIO0014

ORDIZIAKO UDALA

Udalerriko kirol elkarteei euskarazko formaziorako dirulaguntzak emateko oinarriak, 2025.urtekoa.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

1.artikulua. Xedea.

Deialdi honen xedea da kirol eremuan euskararen presentzia areagotzea, eta horretarako, Ordiziako kirol elkarteei dirulaguntza ematea beraien arloko prestakuntza edo formakuntza euskaraz izan dadin.

2. artikulua. Eskumena duen organoa.

Deialdi hau Ordiziako Udaleko Alkateak edo hark eskuordetzen duen organoak onartuko du, eta zabalkundea eta publizitatea bermatu beharko dira.

3. artikulua. Araudia.

Laguntzen emakidak nahiz dirulaguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietarako Ordiziako Udaleko Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Legea hartuko dira oinarri.

4. artikulua. Onuradunak.

Ordiziako kirol elkarteak, Udalarekin euskara sustatzeko hitzarmena sinatuta dutenak.


5.artikulua. Dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak.

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak:

-Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Ordiziako Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

-Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean ez egotea.

-Genero-indarkeriagatiko diskriminazioan erortzeagatik administrazio-zehapen edo



Ordiziako Udala

2025GOIO0014

zehapen penalik ez izatea (dagokion zehapenean ezarritako aldian).

Hauek dira onuradunek bete beharreko baldintza espezifikoak:

-Ordizian kirol arloan euskara sustatzeko Ordiziako Udalarekin hitzarmena sinatuta izatea.

-Elkarteak antolatutako ikastaroa euskaraz izatea.

6. artikulua. Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorritakoekin.

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuetatik helburu bererako jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin.

Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera hartuta, ez da, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango.

7.artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak.

-Eskaera inprimakia behar bezala beteta.


-Euskaraz eman duten formakuntzaren deskribapen zehatza, ordu kopurua, parte hartzaile kopurua, landutako edukiak.

-Formazioaren gastua jasotzen duen faktura edo ordainagiria.

8. artikulua. Dokumentazio elkarreragilea eta egiaztagarria.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 28. artikuluan, aitortzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazioek egin dituen dokumentuak ez aurkezteko. Horrela, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki bildu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datuen bitartekaritza-plataformein edo horretarako gaitutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

Ordiziako Udala Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da. Nisae plataforma komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoen trukea inplementatzeko nodo autonomiko gisa.



Ordiziako Udala

2025GOIO0014

Deialdi honetan honako baldintza hauek egiaztatuko dira plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

- a) Nortasun Agiri Nazionalea edo IFK, pertsona juridikoen kasuan.
- b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- c) Zerga-betebeharrak egunean izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko dena.

Eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, eskatzaileak berak aurkeztu beharko ditu agiriak.

9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epeak eta tokia.

2024ko urritik 2025eko irailera bitartean egindako ikastaroetarako eskaerak 2025eko abenduaren 5a baino lehen aurkeztuko dira.

Eskaerak www.ordizia.eus webguneko zerbitzu telematikoen bidez aurkeztu behar dira. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoetako Prozedura Arrunta arautzen duen 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezartzen duen eran aurkeztu ahal izango dira.

10. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Nahitaezko dokumentazioak akatsen bat badu edo osatugabea bada, interesdunei hamar egun balioduneko epea emango zaie, argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta atzemandako akatsak zuzendu edo beharrezko dokumentazioa osatu ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68.1 artikulua araberaren arabera emango den ebazpenaren ondoren.


11. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa eta finantzaketa.

Udalak formazio saioaren gastuaren %50a finantzatuko du zehaztutako baldintzak betetzen badira, eta kirol-elkarte bakoitzak gehienez ere 750 €-ko dirulaguntza jasoko du kontzeptu honengatik.

Programa honetara bideratutako dirulaguntzen zenbatekoa gehienez 1.800 € da eta 1 481.01.335.00.0141 2025 diru-partidatik bideratuko da.

Aipatu diru kopurua dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean banatuko da.

Partida horretan jasotako diru kopurua baino handiagoa balitz eskaera, Udalak xede bererako diru-kopuru berri batzuk onetsi ahal izango ditu, baldin eta aurrekontu-eskuragarritasuna badago.



Ordiziako Udala

2025GOIO0014

12. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak lehiarik gabeko konkurrentzia prozeduraren bitartez emango dira. Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren II. tituluko 1. atalean ezarritakoaren arabera jardungo da.

13. artikulua. Izapidetzea, proposamena, ebazpena eta ordainketa.

1.- Eskaerak ezarritako epean jasoko dira.

2.- Euskara Zerbitzuko teknikariek eskariak ebaluatu ondoren, txostena egin eta Ordiziako Udaleko Alkateak eskuordetzen duen organora eramango dute, txostena kontuan izanda bere irizpena eman dezan.

3.- Jarraian, www.ordizia.eus webgunean argitaratuko dira eta interesatuak 10 eguneko epea izango du alegazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko.

4.- Behin betiko ebazpena eskaera aurkeztu zenetik gehienez ere hiru hilabeteko epean emango da Alkatetza Dekretu bidez.

5.- Dirulaguntzak ordainketa bakar baten bidez emango da, behin dirulaguntza ematea erabaki eta gero.

14. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

— Dirulaguntza emateak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak interesatuak betetzen dituela egiaztatzea.


— Ordiziako Udalak egin beharreko egiaztatze-lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol-organismoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.

— Beste edozein administrazio edo erakundetatik (publikoa nahiz pribatua, nazio mailakoa nahiz nazioartekoa) jasotako dirulaguntzak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.

— Emakidaren ebazpena idatzi baino lehen, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean egotea, baita Ogasunaren eta Udalaren zerga ordainkizunetan egunean egotea ere. Baldintza horiek Udalak berak egiaztatuko ditu, beti ere eskatzaileak egiaztapen horri uko egiten ez badio.

15. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.

Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. Tituluan ezarritakoa aplikatuko da, baita honako hauetan xedatutakoa ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren



Ordiziako Udala

2025GOIO0014

17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2002 Errege dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua eta gainerako araudi aplikagarria.

16. artikulua. Argitara ematea.

Emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrendak, Ordiziako Udalaren webgunean (www.ordizia.eus) argitaratuko dira.

Sinatzailea	Euskara Teknikaria Maria Teresa Berruet Arbelaiz
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAARMANT.dt8p